



Korrikako antolatzaileek Leizeaga sagardotegian aurkeztu zuten atzo hurrengo Sagardo Egunaren egitaraua

(I. Otegi argazkia)

Astigarragako Sagardo Egunean euskarak eta sagardoak bat egingo dute Korrikaren baitan

Korrika Kulturalako ekitaldi hau datorren martxoaren 6an ospatuko da, festa giroan

N. García de Bikuña

ASTIGARRAGA. Euskara eta sardoa uztartuz, datorren martxoaren 6rako Sagardo Eguna antolatu hirugarrenez AEK-k, Korriren hamaikagarren edizio honen. Korrika Kulturalaren egitarauaren baitan ospatuko den ekitaldi garrantzitsuenetakoa da. Astigarragako Lizeaga sagardotegiko barriken artean atzo jakinarazi zuten Korrikaren antolatzailek Sagardo Egunaren egitaraua. Xabier Irazustak aditzera emanenez, sagardotegiek azken bolan bizi duten arrakasta dela eta, «ero eta gehiago entzuten da erra» bertan. Horregatik, Sagardo Eguna festa giroan euskara ingu-

rune honetara eramateko aitzakia nahi du izan. «Aukera ona da bai euskararentzat, baita sagardotegientzat ere», azpimarratu zuen

Irazustak. Festari egitarauak jasotzen duen berrikuntza batek emango dio irteera: eguerdi partean makailo lehiaketa egingo da he-

rriko frontoian. Parte hartzeko Astigarragako AEKn eman behar da izena, martxoaren 2a baino lehen. Gehienez 20 lagun aurkeztu ahal izango dira, eta antolakuntzak jarriko du behar den guztia.

Sagardotegi bazkaria

Trikilari eta bertsolariek girotuko dute goiza, plazan egongo den artisautza erakusketaz gain.

Ordu bietan Sagardo Eguna honen antolaketan lagunduko duten Astigarraga eta Hernaniko hamalau sagardotegietan hasiko da bazkaria. Makailu tortila, txuleta, gazta, intxaurrak eta sagardorik goxoa dastatzeko bi mila lagun inguru bilduko direla espero dute antolatzaileek.

Arratsaldeaz

Musika eta Korrikaren bideoa

SEIETAN musika emanaldia hasiko da: Txatunga Bembe, Morau eta Joxe Ripiauren doinuek betekoko dute herria. Ondoren, Mundiñano anaien erromeriak amaiera jarriko dio egunari gaueko ordu bata aldean. Horrez gain, Astigarragako plazan jarriko den pantailan Korrika 11ren bideoaren emanaldia eskeiniko da. Txatunga Bembe, Joxe Ripiau eta Maialen Lujanbio, kantuarren egileak, zuzenean kantatuko dutelarik. AEK-k Astigarragako udala eta herri honetako zein Hernaniko hainbat sagardotegien laguntza jaso du Sagardo Eguna antolatzeko.